

H LH6

2017/2018



Zuzenketa koaderno

Izen-abizenak:

Ikastetxea:


Taldea/Gela:

Herria:

Eguna:

***Irakurriaren
Ulermena***

Lehen Hezkuntzako 6.a



Argibideak

Proba honetan testu batzuk irakurriko dituzu eta irakurri duzunari buruzko galdera batzuei erantzunen diezu. Galdera mota desberdinak topatuko dituzu. Galderetako batzuek lau erantzun dituzte, aukeran, eta haietan zuzena dena aukeratu eta haren ondoan dagoen letra biribil batez inguratu behar duzu. Adibidez:

Zenbat pertsona bizi da Iruñean?

- A. Bartzelonan adina.
- B. 200.000 inguru.
- C. Milioi bat.
- D. Zenbait milioi.

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, ezabatu **X** batekin lehen erantzuna eta erantzun zuzena biribil batez ingura ezazu, ondoko adibide honetan egin den bezala:

Zenbat pertsona bizi da Iruñean?

- A. Bartzelonan adina.
- B. 200.000 inguru.
- C. Milioi bat.
- D. Zenbait milioi.

Beste galdera batzuetan esan beharko duzu erantzuna egia (E) ala gezurra (G) den, edo puntuekin adierazitako tartean erantzuna idazteko eskatuko dizute:

Iruñeko zer ezagutzen du jendeak gehien?

.....

Galdera batzuk errazagoak dira eta beste batzuk, berriz, zailagoak. Galdera bat ez baduzu ulertzen, segi lanean eta saiatu geroago.



Proba hau egiteko 60 minutu dituzu.

PRINTZE TXIKIA

Egunero zerbait ikasten nuen haren planetaz, irteeraz, bidaiaz. Hori guztia apurka-apurka zetorren, gogoeten haritik. Hala gauzak, hirugarren egunean baobaben zorigaitza ezagutu ahal izan nuen.

Oraingoan ere arkumeari esker gertatu zen, izan ere, zalantzak jota, printze txikiak honela galdegin baitzidan:

–Arkumeeek zuhaixkak jaten dituzte, ezta?

–Bai. Hala da.

–A! Pozik nago.

Ez nuen ulertzen zergatik zen hain garrantzitsua arkumeeek zuhaixkak jatea. Baina printze txikiak gaineratu zuen:

–Beraz, baobabak ere jango dituzte?

Printze txikiari argitu nahi izan nion baobabak ez zirela zuhaixkak, elizak bezalako zuhaitz altuak baizik, eta, berarekin elefante talde bat eramango balu ere, elefanteek ezin izango luketela hura azpiratu.

Elefante taldearen ideiak irria eragin zion printze txikiari.

–Bata bestearen gainean jarri beharko lirateke...

Baina zuhurtasunez ohartarazi zidan:



–Baobabak ere txikiak dira handi egin aurretik.

–Halaxe da! Baina zergatik nahi duzu zure arkumeeek baobab txikiak jatea?

Begien bistako zerbait balitz bezala, erantzun zidan: “Nola ez, ba!”. Eta burua asko nekatu behar izan nuen arazo hura neure gisara ulertu ahal izateko.

Jakina, printze txikiaren planetan, gainerako guztietan bezala, belar onak eta txarrak zeuden. Eta, jakina, belar onen hazi onak eta belar txarren hazi txarrak. Haziak ikusezinak dira, ordea. Lurraren sekretupean lo egoten dira, harik eta esnatzeko gogoia etortzen zaien arte. Orduan, haziak nagiak atera eta, aurrena lotsaturik bezala, eguzkirantz luzatzen du bere kimu ahula. Arrosondo kimua izanez gero, bere gisara hazten utz daiteke. Baina landare txar bat baldin bada, ernatzen ikusi bezain laster erauzi, hots, erroetatik atera behar da. Eta printze txikiaren planetan hazi beldurgarriak zeuden..., baobab haziak. Planetako lurra bete-beterik

zegoen. Eta baobab bat garaiz erauzten ez baldin bada, beranduegi izan daiteke. Traba egiten dio planeta osoari. Bere erroek dena zulatzen dute. Eta planeta txikiegia eta baobabak handiegia baldin badira, leherrarazi egiten dute.

“Diziplina kontua da”, esan zidan geroago printze txikiak. “Goizean zeure burua garbitutakoan, kontu handiz ekin behar diozu planeta bera garbitzeari. Oso gazteak direnean, baobabak eta arrosoak elkarren antz-antzekoak direnez, sarritan saiatu beharra dago biak ongi bereizten eta baobabak erauzten. Oso lan aspergarria da, baina oso erraza”.

Eta hori guztia ni bizi naizen tokiko haurrei ulertarazteko, egun batez marrazki eder bat egiten saiatzeko aholkatu zidan. “Egunen batean bidaian joaten badira”, esan zidan, “baliagarri izango zaie. Batzuetan ez dago arazorik lana beste baterako uzteko. Baina baobaben kasuan, hondamendia etor daiteke. Behin batez, alfer bat bizi zen planeta bat ezagutu nuen. Hiru zuhaixka bertan behera utzi zituen eta...”

Eta printze txikiaren oharrak kontuan harturik, marraztu egin nuen planeta hura. Ez naiz moralisten mintzamoldearen zalea. Baina baobaben arriskua hain da ezezaguna, eta asteroide batean galtzea hain izan daiteke arriskutsua, behingoz salbuespena egitea erabaki baitut. Eta diot: “Haurrok! Kontuz baobabekin, gero!”. Eta, nire antzera, ene lagunek aspaldidanik zuten arrisku ezezagun horren berri emateko asmotan, lan handia egin nuen marrazki harekin. Eman nien lezioa kontuan hartzekoa zen. Beharbada, zeuen buruari galdegingo diozue: “Zergatik ez ote dago liburu honetan baobabena bezain marrazki handiosik?”. Erantzuna oso erraza da: saiatu, saiatu naiz, baina lortu ez. Baobabak marraztu nituenean, presazko sentimendu batek bultzaturik jardun nuen.



Antoine de Saint-Exupéry, *Printze txikia* (moldatua)

1. Narrazioak kontatzen digunez, baobabak dira:

- A. Planeta jakin batzuetan eta noiz edo noiz Lurrean hazten diren landare espezieak.
- B. Arrosondoan antzeko zuhaixkak, hau da, arantzak dituzten landareak, batzuetan tamaina handia hartzen dutenak.
- C. Tamaina handiko zuhaitzak, hazten direnean sustrai indartsuak dituztenak.
- D. Tamaina handiko landare espeziea, galzorian dagoena eta, beraz, diziplinarekin eta arreta handiarekin zaindu behar dena.

2. Printze txikiaren kapitulu honetan, baobabak berez sinbolo bat dira eta honako hau irudikatzen dute:

- A. Gizakien jarrera negatiboak, gure bizitzan indar handiz sustraitzen direnak.
- B. Pertsonen umore txarra, haien zakartasuna.
- C. Gure gizartean dauden ohiturak.
- D. Pertsonen jokabidea definitzen duten legeak eta arauak.

3. Zer ondorio ditu alferkeriak, narrazioaren arabera?

- A. Baobabak hondatzen ahal direla arretaz zaintzen ez badira.
- B. Alferkeriaren aurka borroka egitea neketsua dela, eta ezinezkoa dela hura gainditzea.
- C. Ahalegintzea eskatzen duten gauzak gerorako uzten direla eta gero ez direla garaiz egiten.
- D. Gauzak azken ordurako uzteak laguntzen dizula bizkorragoa izaten eta zereginak arreta handiagoarekin eta hobeto egiten.

4. Testuak animatzen gaitu ... izatera.

- A. maltzurak
- B. alferrak
- C. espontaneoak
- D. arduratsuak

5. Nork ikasten zuen planetari buruz zerbait egunero?

- A. **Narratzaileak.**
- B. Printze txikiak.
- C. Planetaren jabeak.
- D. Planetako haurrak.

6. Zer gertatzen da baobab bat ez bada garaiz erauzten, erroetatik ateratzen?

.....
.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Ez du erantzun, ez du eman arrazoirik edo okerra da.
1	Erantzun zuzena: hurrengo bietatik bat edo antzeko erantzun bat: - <i>Planeta osoa estaltzen du, zulatu egiten du bere sustraiekin eta leherrarazten.</i> - <i>Ezin da gero erauzi, hazi egiten da eta planeta leherrarazten du.</i> - <i>Hondatu/kalte egin/traba egiten dio planeta osoari.</i>

7. Zertan lagunduko dio arkumeak printze txikiari?

- A. Ondoan izanen du, konpainia egiten.
- B. Bere artileak beroa emanen dio.
- C. **Planeta garbituko du printze txikiarekin batera.**
- D. Lagun bat izanen du hitz egiteko.

8. Zer gertatuko litzateke printze txikiaren planetan pertsona alfer bat bakarrik biziko balitz?

- A. Haziz beteko litzatekeela.
- B. Kutsatuko litzatekeela.
- C. Norbaitek konkistatuko lukeela.
- D. **Lehertuko litzatekeela.**

9. Printze txikiak baobabei buruz esaten duenari dagokionez, zein da atsotitzik egokiena?

- A. "Zuhaitz onak, itzal ona".
- B. "Biharko ez utzi, gaur egin ahal dena".
- C. "Katu bat akabatu, bestea ekarri, xaguentzat berdin".
- D. Aurreko bat ere ez.

10. Zer esan nahi du esapide honek: "*harik eta esnatzeko gogoa etortzen zaien arte*"?

- A. Hazi bat kasualitatez lur emankorreetan erortzen dela.
- B. Hazi bat ernatzen dela eta landarea jaiotzen dela.
- C. Denbora luzea igaro ondoren, landare bat haziak ematen hasten dela.
- D. Lurpeko hazi bat biltzen duela nekazariak.

BANANAZKO PIRULETAK FRUITU LEHORREKIN

Zer prestatu dezakegu banana, txokolate eta fruitu lehorrekin? Ba... piruleta goxo batzuk umeak energiaz beteko dituztenak! Hori da gure gaurko helburua, umeek azkar jan ditzaten lortzea, bai askaria hartzeko, bai hamaiketako gisa.

OSAGIAK

2 banana.

300 gr urtzeko txokolate.

Fruitu lehorrak.



PRESTAKETA

Tamaina berdineko banana xerrak moztu, eta izozkailuan sartu minutu batzuk gogor egoteko. Urtzeko txokolatea urtu mikrouhin-labean, baina kontuz ibili, erre ahal zaizu-eta. Erre ez dadin, mikrouhin-labea 30 segundotan jarri, nola dagoen begiratu, berriro jarri beste 30 segundo, etab. Txokolateari alde guztietatik irabiatu berdinean desegiteko.

Bol batean fruitu lehorrak prestatu. Mahaspasak, intxaurrak, almendrak, albarikoke lehortuak, hau da, egunero energiaz betetzen gaituzten fruitu lehor guztiak.

Banana xerrak izozkailutik atera eta, sardexka baten laguntzarekin, eskuak ez zikintzeko, xerra bakoitza urtutako txokolatetik pasatu, eta, behin xerra guztiak txokolatez blai dauzkazunean, sareta baten gainean utzi, txokolatea gogor jartzeko eta ezer ez zikintzeko. Ondoren, banana xerra bakoitzaren gainean fruitu lehorrak jarri, eta utzi txokolateari gogortzen.

Piruleta hauek hotz-hotzak jan nahi badituzu, xerra bakoitza izozkailuan sartu 30 minutu. Ordu erdi ondoren, jateko prest egongo dira!



HIGIENEN ARAUAK

Janaria prestatzen hasi baino lehen, detaile inportante batzuk kontuan hartu behar ditugu forma seguru eta egoki batean lan egin ahal izateko.

- Janaria prestatu baino lehen, eskuak garbitu behar ditugu ur eta xaboiarekin eta ongi lehortu.
- Eraztunak, eskumuturrekoak eta erlojuak kendu behar ditugu.
- Erabiliko dugun mahaia ur eta xaboi pixka batekin garbituko dugu.
- Ilea aurpegitik kenduko dugu (luzea izanez gero, koleta edo motots bat egin).
- Mantala jarriko dugu.
- Janaria probatzeko erabiliko dugun koilara ongi garbitu erabili eta gero.
- Amaitutakoan, erabilitako tresna guztiak ur eta xaboiarekin garbitu eta bere lekuan gorde behar ditugu.

<http://txikisukaldaritz.blogspot.com.es/2013/12/bananazko-piruletak-fruitu-lehorrekin.html>

Sarah Bennett

11. Bananazko piruletak fruitu lehorrekin nola prestatzen diren neska-mutilei irakasterakoan, zein da helburua?

- A. Haiek tarte atsegina igaro eta sukaldean gustura ari daitezela.
- B. Janariak prestatzen ikas dezatela.
- C. **Askaria azkar har dezatela.**
- D. Elikagaiak maneiatzen ikas dezatela.

12. Zenbat denbora behar da txokolatea urtzeko?

- A. Hogeita hamar minutu.
- B. **Kasu bakoitzean behar dena.**
- C. Minutu bat.
- D. Hogeita hamar segundo.

13. Errezeta hau egokia da edozein mutil edo neska jan dezan? Zure erantzuna arrazoitu.

.....
.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Ez du erantzun, ez du eman arrazoirik edo okerra da.
1	Erantzun zuzena: hurrengo bietatik bat edo antzeko erantzun bat: - Ez, neska edo mutil alergikoak egon daitezkeelako. - Ez, azukrea jan ezin duten neska-mutilak daudelako.

14. Zer objektu eta tresna behar dira, testuaren arabera, errezeta hau prestatzeko?

- A. Izozkailua, mikrouhin-labea, sardexka, sareta, bola eta irabiagailua.
- B. Izozkailua, mikrouhin-labea, sareta, bola, koilaratxoa eta labana.
- C. Izozkailua, mikrouhin-labea, sardexka, bola, labana eta zartagina.
- D. **Izozkailua, mikrouhin-labea, sardexka, sareta, bola eta labana.**

15. Honako higie ne arau hauei eman zenbakiak, 1etik 5era, testuak ematen duen ordenaren arabera:

- 2** Erabiliko den mahaia ur eta xaboiarekin garbitu.
- 3** Ilea aurpegitik kendu motots batekin edo txano batekin.
- 5** Erabili ditugun tresnak garbitu eta gorde.
- 1** Eskuak garbitu eta ongi lehortu.
- 4** Mantala jarri.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0 – 1 – 2 erantzun zuzen.
1	3 – 4 erantzun zuzen.
2	5 erantzun zuzen: 2 – 3 – 5 – 1 – 4.

16. Mikrouhin-laberik ez badago...

- A. ... ez dago beste modurik txokolatea urtzeko.
- B. ... txokolatea lapiko batean urtu daiteke.
- C. ... txokolatea zartagi batean frijitu daiteke.
- D. ... txokolatea labean urtu daiteke, potentzia handiengan eta 30 minutuz.

FISIKAREN SORRERA

Zaila da Fisikaren sorrera miaztea, ibai handi askoren sorrera miaztea bezain zaila: iturri txiki batzuk, landaretza tropikaleko hosto berdeen azpian burbuilak egiten ari direnak edo, iparraldeko herrialde antzuan, tantaka ari direnak goroldioak estalitako harrien azpian; mendiaren magalean behera pozik datozen errekatxo batzuk, errekek sortzeko elkartzan direnak, gero horiek era berean elkartzan direlarik “ibai” izena merezi duten korrante handi samarrak eratzeko. Ibaiak gero eta handiagoak egiten dira, ur-emaile asko hartuta, eta azkenean korrante indartsuak bihurtzen dira –Mississippi edo Volga bezalakoak, Nilo edo Amazonas bezalakoak– eta ura ozeanoari ematen diote.

Fisika deitzen den zientzia ibai handia da eta hura sortu zuten iturriak sakabanatuta daude *homo sapiens* –hau da, gizaki pentsatzailea– bizi den Lur osoan. Badirudi, dena dela, iturri gehienak pilatuta daudela penintsula balkanikoaren hegoaldeko puntan, orain “greziar zaharrak” deitzen ditugunen bizilekuan, edo hala iruditzen zaigu, behintzat, guri, lehen “intelektual” horien kultura jaso dugunoi.

Interesgarria da jakitea Babilonia edo Egipto bezalako nazio zaharrek asko lagundu zutela Matematikaren eta Astronomiaren garapen goiztiarrean, baina erabat antzuak izan zirela Fisikaren garapenerako.

Zientzia honek Grezian izan zuen garapenarekin alderatuta, ahulezia ikusten da eta ahulezia horren arrazoia hau izan daiteke: Babiloniako eta Egiptoko jainkoak goian bizi ziren, izarretan, eta greziar zaharren jainkoak, aldiz, 10.000 oin besterik ez zituen goialde batean bizi ziren, Olinpo mendiaren gailurrean, eta, beraz, mundu honetako arazoetatik hurbilago.

Elezahar baten arabera, “magnetismo” hitza Greziako artzain baten izenetik dator: Magneto izeneko artzaina harriztuta geratu omen zen ikusi zuenean bide bazterreko harri batek (burdinezko mineral magnetikoak) bere bastoiaren muturreko burdina erakartzen zuela.

“Elektrizitate” hitza, era berean, grezierazko “elektron” (anbarra) hitzetik dator. Horren arrazoia izan liteke agian beste artzain heleniko batek –anbar zati bat leuntzeko, bere ardieta baten artilearekin igurtzi zuenean– ikusi zuela anbarrek egur zati txikiak erakartzeko gaitasun misteriozua zuela.

George Gamow, Fisikaren biografia

17. Aipa ezazu “ur-emaile” hitzaren sinonimo bat, esaldi honetarako egokia dena: “Ibaiak gero eta handiagoak egiten dira, ur-emaile asko hartuta”.

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzunik ez edo erantzun okerra.
1	<i>Ibaiadar / Ur-iturri.</i>

18. Nortzuk dira, testuaren arabera, lehen intelektualak?

- A. *Homo sapiensak.*
- B. Egiptoarrak.
- C. Greziar zaharrak.
- D. Babiloniarrek.

19. Testuan aipatzen da “magnetismo” hitza Magneto izeneko artzain greziar baten izenetik datorrela. Hori egia dela ziurta dezakegu?

- A. Bai, George Gamow fisikariak *Fisikaren biografia* liburuan hala dioelako.
- B. Ez, elezahar batean kontatzen den zerbait delako.
- C. Ez, egiptoarrak, eta ez greziarrak, Fisika lehenak garatzen izan zirelako.
- D. Bai, elezaharrek kontatzen duten guztia egia delako.

20. Zein da testu honen gai nagusia?

- A. Ibaiak eta landareak.
- B. Fisika.
- C. Nazio zaharrak.
- D. Hitzen jatorria.

21. Nongoa zen anbarra artilearekin igurtzi zuen artzaina?

- A. Egiptokoa.
- B. Babiloniakoa.
- C. Greziakoa.
- D. Magnetokoa.

22. Babilonia eta Egipto herrialdeek lagundu zuten ... garatzen.

- A. Astronomia
- B. Fisika
- C. Idazketa
- D. Arkitektura

23. Zer ikusi zuen artzainak anbar zatia ardien artilearekin igurtzi zuenean?

.....
.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzunik ez edo erantzun okerra.
1	Erantzun zuzena: hurrengo bietatik bat edo antzeko erantzun bat: - <i>Anbarrak egur zati txikiak erakartzen zituela.</i> - <i>Beste gorputz batzuk erakartzeko gaitasuna zuela.</i>

5 ARRAZOI IKASGELAKO BLOGA IZATEKO

INOIZ EZ BADUZU PENTSATU IKASGELAN
BLOGA ERABILTzea, HEMEN DITUZU
ARRAZOI BATZUK AUKERA HORI AINTZAT
HARTZEKO:



1

Erraztasuna

SAREAN EDUKIAK
ARGITARATZEA ETA
KONPARTITZEA INOIZ
BAINO ERRAZAGOA DA,
BAI IRAKASLEENTZAT BAI
IKASLEENTZAT.

2

Antolaketa

ZUK ANTOLATZEN
DITUZU EDUKIAK
KATEGORIEN ETA
ETIKETEN BIDEZ, GERO
ERRAZ AURKITU ETA
BERRESKURATU AHAL
IZATEKO.

3

Multimedia

FORMATU MOTA GUZTIAK
ONARTZEN DITU: TESTUA,
IRUDIA, AUDIOA, BIDEOA...,
2.0 ZERBITZU ETA
APLIKAZIO ASKOREKIN
BATERAGARRIA DA.

4

Interakzioa

PARTE-HARTZEA ETA
LANKIDETZA
ONARTZEN DITU:
ERABILTZAILE ANITZ,
IRUZKINAK IDATZIZ
PARTE-HARTZEA,
BLOGEN SAREAK,
PLANETAK, SARE
SOZIALAK...

5



Aukerak

GELAKO ALDIZKARIA,
PROIEKTUEN ARRASTOA,
PODCASTA, BIDEOBLOGA, PLE,
IKASLEEN PORTFOLIOA,
BALIABIDEAK HANDITZEA...

Néstor Alonso
educ@conTIC



24. Zein da testu honen helburua?

- A. Ikasgelan blogak erabiltzera behartzea.
- B. Blogen erabilerari buruz ohartaraztea.
- C. **Ikasgelan blogak erabiltzera animatzea.**
- D. Blogen onurak ezagutzea.

25. Esan ezazu X baten bidez ondoko baieztapen hauek egia (E) ala gezurra (G) diren:

	E	G
Blogak ez du aukera asko eskaintzen.		X
Interakzioa egin daiteke, Facebook eta Twitter erabilia.	X	
Blogak erabiltzea ikasleentzat bakarrik da erraza.		X
Bere ahulezietako bat da ez duela audiorik onartzen.		X
Edukiak erraz berreskura daitezke.	X	

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0 – 1 – 2 erantzun zuzen.
1	3 – 4 erantzun zuzen.
2	5 erantzun zuzen: G, E, G, G, E

26. Zer esan nahi du “multimedia” hitzak?

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzunik ez edo erantzun okerra.
1	<i>Formatu mota guztiak onartzen dituela: testua, irudia, audioa, bideoa edo antzeko erantzun bat.</i>

27. Zer da “interakzioa”?

- A. Formatu mota guztiak onartzea.
- B. Etiketak ipintzea lokalizatzeko.
- C. **Iruzkinekin parte hartzea.**
- D. Podcasta egitea.